



XI. EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERLANA.



XI.01. **KONTSIDERAZIO OROKORRAK**

Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean barne hartuta aurkezten den Ekonomia eta Finantza Azterlanak ondoko alderdiak bilduko ditu:

- PEaren 19.1.b) artikuluan definitutako lurraldearen egitura orokor eta organikoari eta zerbitzuen ezarpenari dagozkien urbanizazio-obren burutzapenaren ebaluazio ekonomikoa (biak lurzoru urbanizagariari lotutako lau urteko programetan barne harturik).
- Hala badagokio, hiri-lurzorurako programatutako jarduketegi buruzko ebaluazio ekonomikoa.
- Aurreko ataletan adierazitako Plan Orokorraren aurreikuspenak burutzeko egin beharreko inbertsioen izaera publiko edo pribatuaren finkapena. Sektore publikoari eta pribatuari esleitutako obrak eta zerbitzuak behar bezain zehatz agertuko dira eta, lehen kasuan, inbertsioaren zenbatekoa beren gain hartzen duten organismo edo entitate publikoak adieraziko dira.